

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Kasu guztietan:

- Erantzukizunpeko Adierazpena legezko ordezkariarengatik sinatuta eta zigiluarekin.
- Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dituztelako ziurtagirien fotokopiak.
- Ekonomia-jarduera foru ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri eguneratuaren fotokopia (EJZ).

Autonomoek:

- IFKaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren autonomoen araubideko altaren fotokopia edo Gizarte Segurantzako oraingo egoeraren ziurtagiria.

Pertsona juridikoek:

- IFKaren fotokopia.
- Eraketa-eskrituren fotokopia.
- Ordezkaritza-botereen fotokopia.
- Legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia.

Sozietate zibilek, ondasun-erkidegoek edo beste elkarte batzuk:

- IFKaren fotokopia.
- Eraketa-eskrituren fotokopia edo estatutuena edo behar bezala erregistratutako eraketa-kontratua
- Ordezkaritza-botereen fotokopia.
- Legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia.

*Diru-laguntzen eskabideak Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapenerako Arloari (enplegua eta talentua) bidaliko zaizkio Bilbao Ekintza EPELeren webgunean dagoen aplikazioaren bitartez. Eskabideak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 12an hasiko da, goizeko, 09:00etan, salbu eta data horretarako deialdi hau ez bada Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Kasu horretan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da, goizeko 09:00etan.*